

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2016ko errolda

Jarduera ekonomikoen gaineko zerga ordaindu behar duten guztiei jakinarazten zaie ezen zerga horri dagozkion zergadunen 2016ko errolda ondoko tokietan egongo dela ikusgai iragarki hau argitaratzen denetik aurrera:

Udal kuotak: kasuan kasuko udaletxean.

Probintzia eta estatuko kuotak: Arabako Foru Aldundian.

Zergadunek egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkeztu ahal izango dizkiote zerga kudeatzen duen erakundeari edo, bestela, Arabako Lege eta Administrazio Erakundeari, 15 egun balioduneko epean, hura jendaurrean jartzen den egunetik aurrera.

Halaber, iragartzen da jarduera ekonomikoen gaineko zerga epe hauetan bilduko dela:

I. Ordaintzeko epea

a) Borondatezko epea: 2016ko irailaren 5etik azaroaren 5era.

b) Premiamendu aldia: 2016ko azaroaren 6tik aurrera, premiamenduko betearazte bide administratiboa hasiz eta dagokion errekarguarekin (otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren, Arabako zergenaren, 28. artikulua).

II. Ordaintzeko lekua eta modua

a) Aurreko urteetatik ordainketa banku erakundeetan helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin beharko, helbideratze kontu berbera mantentzen badute. Udalak izapidetuko du ordainketa.

b) Helbideratu gabeko ordainketak: ordainketa bankuren batean helbideratuta ez daukatenek udal bulegoetan baino ezin izango dute egin borondatezko epean.

III. Gomendioak

Bankuko helbideratzeen alta edo aldaketak zein interesdunei jakinarazpenak egiteko helbi-deen aldaketak, Aguraingo Udalaren bulegoetan izapidetu beharko dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Agurain, 2016ko uztailaren 26a

Alkatea

IÑAKI BERAZA ZUFIAUR